

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 102/2021 FORU DEKRETUA, uztailaren 13koa;
2022an Bizkaiko etorkizun handiko kirolariak identifikatzeko eta kirolari ho-
riei laguntza emateko arautegia ezartzen duena.**

Euskara, Kultura eta Kiroleko Sailak bere helburuen artean dauka haien kirol ibilbi-
deagatik edo kirol emaitzengatik, eta lehiaketetan goi-maila lortu ez arren, horretarako
gaitasuna erakusten duten kirolariak identifikatu eta aguntzea.

Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko 2014ko martxoaren 31ko
jarduketa-protokoloarekin bat, Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako teknikariek osatutako
batzorde misto bat dago, kirolerako talentuak identifikatzen dituen etorkizun handiko
kirolarien artean. Talentuak dira kasuan kasuko kirol modalitateko lehiaketetan goi-maila
lortzetik hurbil daudela egiaztatu duten kirolariak.

Honako foru dekretu honen helburua da irizpideak ezartzea Bizkaiko etorkizun han-
diko kirolariak identifikatzeko eta kirolari horiei zerbitzu mediko, tekniko eta formakuntza-
koak ezartzeko, kirolerako talentutzat identifikatu orduko pausu modura.

Proposatutako xedapen orokorraren gaiari dagokion eskumena Bizkaiko Foru Aldun-
diarena da, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta bertako Lurralde Historikoe-
tako Foru Organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen
7.b.6 artikulua araber, lurralde historikoei baitagokie erakunde erkideek kirolaren
sustapenaren arloan emandako legeak garatu eta betearazteko eskumena.

Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak bere 2.3 artikuluan dio aginte
publikoek, beren eskumen-esparruaren barruan, kirola egiteko eskubidea behar beza-
la gauzatzea bermatuko dutela, eta horretarako burutuko duten kirol politikak printzipio
hauek izango dituela oinarrian, besteak beste: goi-mailako kirola bideratzea eta susta-
tzea kirol federazioen parte-hartzearekin.

Kirolaren Euskal Lege horren 5.f artikulua ezartzen du lurralde historikoetako foru
organoei dagokiela goi-mailako kirolean etorkizun oparoa izan dezaketen kirolariei la-
guntza tekniko eta ekonomikoa ematea. Lege horrek, 70.3 artikuluan, honela definitzen
ditu etorkizun handiko kirolariak: lehiaketetan goi-maila lortu ez arren, horretarako gaita-
suna erakusten duten kirolariak.

Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuaren bidez one-
tsitako Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoari buruzko araudiak dio saila-
ri dagokiela maila guztietako kirol lehiaketak eta jarduerak sustatu eta koordinatzea, gure
gizartean kirola aktiboki ager dadin eta harekiko zaletasuna bultzatzea dadin.

Halaber, izapidetzean printzipio hauek hartu dira oinarri: beharrezkotasuna eta era-
ginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, lastertasuna,
efizientzia eta kontu-ematea, hauek guztiak erregulazio onaren printzipioei lotutakoak
baitira. Izan ere, hala ezartzen dute xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen
duen Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artiku-
luak eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren
1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua (printzipio horiek, oro har, lantzen ditu). Azkenik,
maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretua betetzen da, zeinaren bidez ezartzen baitira
Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak.

Zehazki, aipatutako urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren xedatutakoa kontuan
hartuta, txosten hauek eman dira foru dekretu hau egin denean:

1. Proiektua sustatu duen sailaren txosten juridikoa.
2. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.



3. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
4. Legezketasunari buruzko txostena.

Azaldutakoa dela bide, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17., 39 k) eta 64.3 artikulua ikusita eta Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak emandako ahalmenak aintzat hartuta, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatu andreak proposaturik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2021eko uztailaren 13ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe,

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra.—2022an Bizkaiko etorkizun handiko kirolariak identifikatzeko eta kirolari horiei laguntza emateko programaren arautegia onestea

2022an Bizkaiko etorkizun handiko kirolariak identifikatzeko eta kirolari horiei laguntza emateko programaren arautegia onesten da.

AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapenetako Lehenengoa.—Ahalmena ematea

Ahalmena ematen zaio Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari, Foru Dekretu honetan xedatutakoa ondoen garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken Xedapenetako Bigarrena.—Indarrean jartzea

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2021eko uztailaren 13an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

**2022AN BIZKAIKO ETORKIZUN HANDIKO KIROLARIAK IDENTIFIKATZEKO
ETA KIROLARI HORIEI LAGUNTZA EMATEKO ARAUTEGIA****1. oinarria. — Xedea**

Foru dekretu honen xedea da 2022an Bizkaiko etorkizun handiko kirolariak identifikatzeko eta kirolari horiei laguntza emateko programa arautzea.

2. oinarria. — Etorkizun handiko kirolariak identifikatzea

Bizkaiko Lurralde Historikoko etorkizun handiko kirolariak identifikatzeko eta 2022ko Programan sartzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak kirol merezimenduak neurtuko ditu, eskatzaileek eurek aurkeztutako dokumentazioaren eta datuen argitan.

3. oinarria. — Baldintzak

1. Bizkaiko Foru Aldundiak 2022ko etorkizun handiko kirolari izaera aitortzea nahi duten kirolariek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) 2021erako kasuan kasuko Bizkaiko federazioaren bitartez lizentzia izapidetuta izatea.
- b) 1998 eta 2006. urteen artean (biak barne) jaioak izatea.

Salbuespen gisa, urte horiek baino lehen edo ondoren jaioak kirolariak sartu ahal izango dira, betiere kasuan kasuko federazioak behar bezala justifikatzen badu txosten batean, zeina kirolariak aurkeztuko baituen eskabideak aurkezteko epearen barruan.

Federazio txosten hori ez da loteslea izango. Kirol Zerbitzuak proposatu dezake txostena aurkeztu duten kirolariak ez sartzeko, beti ere zergatia arrazoitzen badu.

2. 2020ko irailaren 23tik 2021eko irailaren 30era (egun biak barne), gutxienez 5. oinarrian datorren kirol-merezimenduren bat lortu duten kirolarien eskabideak baino ez dira aztertuko.

4. oinarria. — Dokumentazioa eta epeak

1. Bizkaiko Foru Aldundiak 2022ko etorkizun handiko kirolari izaera aitortzeko aurrez aurreko eskabideak eranskineko eredu ofizialean (I inprimakia-EK1 eredua) aurkeztu behar dira, behar bezala beteta. Eredua web-orri honetan eskura daiteke: <http://www.bizkaia.eus/kulturadirulaguntzak>

Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikokoaren bidez aurkeztuz gero, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira betetzeko eta egoitzan aurkezteko dauden eredu berezien arabera eskabideak erabili beharko dira.

Kirolari adingabeen eskabideak aitak, amak edo legezko ordezkariak aurkeztuko ditu. Kirolari bakoitzeko EK1 inprimaki bakarra bete beharko da.

2. Eskabideekin batera dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a) 2021 urteari dagokion federazio lizentziaren kopia.
- b) Kasuan kasuko kirol merezimenduak egiaztatze dokumentua, dagokion federazioak emana.
- c) Kirolaria Dekretu honen 3.1.b) oinarrian ezarritako urteak baino lehen edo ondoren jaio bada: sar dadin behar bezala justifikatzen duen kasuan kasuko federazioaren txostena.
- d) Legezko edo borondatezko ordezkarietaz jardunez gero, ordezkarietza zuzenbidean baliozkoa den edozein frogabide erabiliz egiaztatzea.

3. Edozein kasutan ere, Bizkaiko Foru Aldundiak kontsultatu eta egiaztatu egingo ditu eskatzailearen identitateari buruzko datuak, eta, era berean, ordezkarietako adingabearenak.

Datu horiek eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamen-



duan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat, bai eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorritik.

4. Eskabideak aurkezteko epea 2021eko urriaren 1etik 15era izango da, egun bi horiek barne.

5. oinarria. — Hautaketa-irizpideak

Bi zerrenda egingo dira etorkizun handiko kirolaritzat jotako pertsonekin (I. maila eta II. maila), kirol-merezimenduei begira.

Hautaketa irizpideak honakoak izango dira:

I. maila

- Europako edo munduko txapelketetan parte hartzea, baldin eta parte hartzeko alde aurreko sailkapena behar bada (herri kirolen modalitatean izan ezik).
- Estatuko selekzioarekin nazioarteko lehiaketan parte hartzea, baldin eta dagokion denboraldian Europako edo munduko txapelketarik egiten ez bada (herri kirolen modalitatearen kasuan, euskal selekzioarekin parte hartzea Estatuko selekzioarekin parte hartzearen parekoa da ondorio guztietarako).
- Estatuko errekor absolutua haustea.
- Estatuko maila goreneko lehiaketa erregularrean kategoria absolutuan parte hartzen duen taldeko kidea izatea.
- Euskal pilota modalitatean, profesional-aurreko kontratua izatea.
- Tosta finkoko arraunketako modalitatean, gutxienez Eusko Label ligan edo Euskotren Ligan egindako estropaden erdietan arraun egitea.

II. maila

- Dagokion nazioarteko federazioaren egutegian sartutako nazioarteko lehiaketan parte hartzea.
- Lehen, bigarren edo hirugarren postua egin estatuko banakako txapelketan. Klubaren edo taldeen arabera lortzen diren postuak ez dira baliozkoak izango.
- Estatuko modalitateko selekzioarekin kontzentrazioetan edo teknifikazioetan parte hartzea (herri kirolen modalitatearen kasuan, euskal selekzioarekin parte hartzea estatuko selekzioarekin parte hartzearen parekoa da, ondorio guztietarako).
- Bere adinari edo goragokoari dagokion estatuko maila goreneko lehiaketa erregularrean parte hartzen duen talde bateko kide izatea.
- Tosta finkoko arraunketa: trainera, batel eta trainerilletan, estatuko txapelketan lehen postua lortzea.

2022an etorkizun handiko kirolaritzat jo beharrekoen zerrenda eta berauen I. maila eta II. maila arteko banaketa zein etorkizun handiko kirolaritzat jotzerik ez legokeen zerrenda Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari proposatuko zaizkio Kirol Zerbitzuaren txosten bidez, behin betiko ebazpena eman dezan.

6. oinarria. — Aholkularitza

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuak behar den laguntza tekniko edo aholkularitza eskainiko ditu foru dekretu hau dela-eta sortutako zalan-tza edo kontsulta guztiak argitzeko, horretarako, foru webgunea erabili ahal da: <http://www.bizkaia.eus/laguntzaileKirolak>

7. oinarria. — Ebazpena

1. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea hiru (3) hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta.

2. Ebazpena Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak emango du, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuaren txostena jaso ondoren. Oinarri honen 1. Puntuan ezarrita-



ko epe hori eskabideari buruzko ebazpen adierazirik eman gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsitzat joko da; hala ere, ebazpen adierazia geroago ere eman ahal izango da.

3. Ebazpenaren foru agindua eskabidea aurkeztu duten interesdunei jakinaraziko zaie Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuz. Posta ziurtatu bidez ere komunikatuko zaie eta, hala dagokionean, egoitzan agertzeko sistemaren bidez.

Jakinarazpen horretan berariaz azalduko da foru agindu horrek administrazio bidea amaitzen duela eta haren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal zaiola Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari, foru agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete (1) pasatu baino lehen, edo Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daitekeela, era berean zenbatutako bi (2) hilabete pasatu baino lehen.

8. oinarria. — *Denbora-eremua*

Bizkaiko Foru Aldundiak etorkizun handiko kirolari izaera aitortu ondoren, izaera horri eutsiko zaio 2022ko abenduaren 31ra arte.

9. oinarria. — *Etorkizun handiko kirolaritzat jotzeak dakartzan onurak*

1. Bizkaiko Foru Aldundiak etorkizun handiko kirolaritzat jotako pertsonak programa batean sartuko dira eta ondoren aipatzen diren onurak izango dituzte, beren mailaren arabera.

a) *I. maila:*

- 1) Zerbitzu medikua:
 - Esfortzu proba.
 - Ekografia kardiakoa.
 - Analitika.
 - Orientazio dietetikoa.
- 2) Kirol zerbitzu teknikoa: kirolariei sostengua emanaz Programako Kirol Teknikari baten bidez, bere Kirol Errendimendua hobetzeko.
- 3) Formakuntza zerbitzua:
 - Etengabeko formazioa, izaera praktikoduna, hileroko tailerren bidez.
 - Aholkularitza akademikoa kasuan kasuko hezkuntza alorrean eta goi mailako ikasketetarako sarbidea.
- 4) Kanpo-zerbitzuak:
 - Test genetikoen zerbitzua.
 - Psikologia zerbitzua.

b) *II. maila:*

- 1) Formakuntza zerbitzua:
 - Etengabeko formazioa, izaera praktikoduna, hileroko tailerren bidez.
 - Aholkularitza akademikoa kasuan kasuko hezkuntza alorrean eta goi mailako ikasketetarako sarbidea.
- 2) Kanpo-zerbitzuak:
 - Test genetikoen zerbitzua.
 - Psikologia zerbitzua.

2. Onuren denborazko iraupena 2022ko abenduaren 31ra arte izango da, luzapena egon litekeelarik hurrengo deialdiaren arabera osatutako zerrenda onartu arte.

Etorkizun handiko kirolaritzat jotzearen merezimendua galdu liteke onuradunak, beti ere emateko ontzat hartu ziren baldintzak galtzen baditu Kasua heldu ezkerro, Kirol Zerbitzuko proposamena bitarte, Euskera, Kultura eta Kiroleko diputatu foralaren agindu foral batez ezarrikerik merezimendu galera.



3. Bizkaiko Foru Aldundiak, Kirol Zerbitzuaren bidez, aipatutako onureta nor jabetu den jarraipena egingo du, sexuaren arabera desagregaturiko datuekin.

10. oinarria. — Betebeharrak

Bizkaiko Foru Aldundiak etorkizun handiko kirolaritzat jo dituen pertsonen konpromisoa hartzen dute Bizkaiko Foru Aldundiari baimena emateko haien irudia erabil dezan, aitorpena indarrean dagoen bitartean. Inolako mugarik gabe erabili ahal izango du eta kirolariak ez du izango ordainsaririk jasotzeko eskubiderik. Bizkaiko Foru Aldundiak irudi hori era egokian erabiliko duela bermatzen du.

Pertsona horiek konpromisoa hartzen dute, aitorpena indarrean dagoen bitartean, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen dituen sustapen-jardueretara joateko, hala eskatzen zaienean.

Halaber, pertsona horiek 2022ko otsailaren 15 baino lehen (egun hau barne) aurkeztu beharko dute etorkizun handiko kirolaritzat hartzeko aintzatetsi zaion modalitateko 2022ko federazio lizentziaren kopia Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuan.

Artikulu honetan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira etorkizun handiko kirolari izaera galduko da, ondorio guztietarako, eta, zehazki, foru dekretu honen 9. oinarrian ezarritako onurak galduko dira.